



Jakin filosofatzen

«Normaldu egin da askatasuna eta segurtasuna kontrajartzea»

Oier Iruretagoiena Arregi

◇ **Nia/besteak, horra tenka filosofiko handi bat. Behar du artistak bestea?**

Besteekin batera garelako gara gu gutako bakoitza. Artistok ez genuke ezer egingo hartzailerik gabe, baina ez dugu besteak kontentatzeko lan egin behar. Espektatibak betetzen saiatzea denontzat da antzua.

◇ **Eta zertarako behar du gizakiak artea?**

Bizitzarekiko loturak indartzeko eta haren aukerak zabaltzeko, norbere burua ezagutzeko, bizitza bizigarriagoa izateko...

◇ **Filosofiak badu lekurik zure tailerrean?**

Nik galderak baditudanez, nirekin ditut tailerrean ere, eta garrantzitsuak dira niretzat, baina ez dira nahitaez agerikoak emaitzetan. Ondo dago horrela: geruza gehigarri bat baino ez dira nire hitzak. Lanak bere presentziarekin defendatu behar du bere burua.

◇ **Zein dira galderak azkenaldian?**

Giza harremani erreparatzen diet: zergatik eta nola egiten diogun gaitz elkarri, adibidez.

◇ **Eta?**

Gai zabala da, baina zerbait laburra esatekotan: kontuz beste etiketak ezartzearekin, deshumanizatorako bidea da.

◊ «Arteak aurrera egiteari utzi izan balio bezala da», zenion azkenengoz *Berria*-n. Zer diozu gaur?

Kategorikoezia iruditzen zait, baina berdin irizten diot.

◊ Zehatzago, hala zenion: «Mark Fisherrek esaten du 1990eko hamarkadaren amaierara arte joeren eboluzio bat ikusten dela, baina hortik aurrera lehorraldi bat datorrela. [...] Nobedaderik sortzen bada, azalekoak dira, ez egiturazkoak». Ideien esparruan ere ikusten duzu?

Fisherren ustez, egoera sozioekonomikoa da kausa. Egunerokotasunean darabiltzagun diskurtsoei begiratuta, badut harrapatuta eta otzanduta gaudelako usterik. Prekaritateak itota, etsita, beldurtuta. Salbuespenak ere badira.

◊ Inguruari so, harritzen zaituen ideia bat?

Koronaldian hartutako neurrien inguruko hausnarketa eta kritika falta, urteak pasatu ondoren, eta distantziaz azter daitekeenean.

◊ Asaldatzen zaituenik?

Normaldu egin da askatasuna eta segurtasuna kontrajartzea. Baina Ana Carrasco-Condek dioen gisara, askatasunaren kontrakoa esklabotza da, eta segurtasunaren kontrakoa, arriskua. Askatasuna arriskutsutzat hartzen badugu, bidea zabaltzen diegu autoritarismoari eta umetzeari.

◊ Eta liluratzen?

Jean-Luc Nancyk «irekidura» deitu zion hau: gizaki izatea gizaki izate soila baino askoz gehiago dela; beti badela zerbait gure oso gainetik. Bestela, gauzen arteko gauzak besterik ez ginateke, bere baitan itxitako munduan.



Itziar Ugarte Irizar